



Andoaingo Udala

---

## **Hemen da CIMASUB, Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa**

- **Irailaren 14ean izango da lehen proiektzioa, eta hiru emanaldi izango dira guztira, argazki erakusketaz gain.**
- **Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloak itsas hondoa ezagutaraztea eta harekiko errespetua transmititzea du helburu.**

**Andoainen, 23-09-11.-** CIMASUB zikloak Andoainen egingo du geldialdia iraila honetan. Bere lehen edizioa izango da, eta horren baitan, hiru emanaldi eskaini dira guztira: Irailaren 14, 21 eta 28an 19:00etan izango dira, Bastero Kulturgunean, eta doako sarrera izango dute.

Mundu osoko zaletu eta ikus-entzunezko profesionalen grina transmitituko da horien bitartez, gizakiaren eragina erdigunean jarrita, planetaren bizi iraupenerako hain garrantzitsuak diren itsaso eta ozeanoen edertasuna eta narriadura erakutsiko digute.

Gizakiaren biziraupen etorkizunerako ezinbestekoak zaizkigun pentsaera eta ohi-tura aldaketak martxan jartzeko etsipen deiadar moduan dator aurtengo leloa, “Orain edo Inoiz ez“. Denbora gure kontra dugunean, gure ozeanoen egoera erre-ala ezagutarazteko helburuarekin eta itsasoak izkututzen dituen altxorak ahaztu gabe, hauek kaltetzen dituzten arazoak azaleratu nahi dira.

Urpeko Errege Elkartearen eta Andoaingo Udalaren kargu joan da antolaketa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren babesarekin.